



DEBAKO UDALA

- AZAROAK 25 -

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25ean, beste behin, emakumeok* espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko dugun eskubidea aldarrikatu nahi dugu, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatuz.

Emakumeon* aurkako sexu-indarkeriak, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea.

Batzuei, "normaltasunera" iristen ari garela iruditzen zaien arren, zoritxarrez, bide luzea dago jorratzeko; eta gutariko bakoitzari dagokigu, egunerokotasunean arreta jarritz, detaile txikienari erreparatuz, gure inguruan eragitea, jardutea, ... bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde egitea dagokigulako.

Gure kasuan, Debako Udalbatzatik, bide horretan lagungarri izan daitezkeen baliabide eta ekimenak hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu, honakoa adieraziz:

1. 2023ko aurrekontuetan Berdintasun Politiken alorreko jarduerak aurreikusten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugula.
2. Jai parekideak sustatzeko lanean jarraituko dugula. Bertan gerta daitezkeen erasoei erantzuteko eta prebenitzeko protokoloa eguneratuta mantenduz, herriko eragileekin batera (DIT, kultur eragileak, ...).
3. Debako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugula, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraitzeko bide eta tresna nagusia den heinean. Eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Emakunderi emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko eskatzen diegula, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legedia berraztertzeko konpromisoa hartzeko.

Deban, 2022ko azaroaren 24an.